# ttipi-ttapa

**293.** zenbakia • 2001ko urtarrilak 11 • **XXI.** urtea



ORONOZKO ZUBIALDEA BASERRIAN

# Euskal arrazako zerri pintto beltzak

**Duela 50 urte zerri pintto beltzak ziren inguru honetan gehien. Gero, kasik desagertu ondotik, berreskuratzeko ahaleginetan ari da azken 6 urteotan Nafarroako ITG.**

Euskal arrazako zerri pintto beltza zen gure inguruotan hedatuena duela 50 urte. Bazter hauetan aski ongi moldatzen omen zen, bainan halere, bertze arrazako zerriekin konparatuz, produktibidade ttikikoa zen. Zerri pintto beltza mantsoago hazten da, eta banaz bertze, umaldiko bortz zerrikume bertzerik ez ditu egiten. Gauzak horrela, baserrietan errentagarritasun haundiagoko zerriekin hasi ziren lanean, eta denborarekin, euskal arrazako zerria galtzen joan zen. Desagertzeko punttuan ere egona da, bainan azken 6 urteotan Nafarroako ITGk (Teknika eta Kudeaketarako Institutuak) berreskuratzeko saioa egiten ari da. Oronozko Zubialdean 7 zerrama eta aketz batekin hasi ziren duela 2 urte. Orain, 40 ardi (eme) eta 4 ordots (ar) dituzte, eta zerrikia merkaturatzen ere hasiak dira.

☞ 4-5



**3** Elkarrizketa:
**Martin Goikoetxea, Berako argazkilaria**
Hilabete honen hondar aldera Zaragozan banatuko diren *Goya* sarietarako, Goikoren argazki bat proposatu dute. Halere, saritu dizkioten 4 argazkien artean *«batzuek argazki industrialak dira, eskualdeko fabrika batean ateriak, eta bertzeak, Uxueko erromeriakoak».*

**6** Gaurkotasuneko Gaia:
**Irakaskuntza askatasuna, kolokan**
Udan Espainiako Real Academia de la Historiak eta berriki Sanz Presidenteak egindako deklarazioek hautsak harrotu dituzte hezkuntza arloan. Irakasle bat, argitaletxeko kide bat eta orientatzaile baten iritziak bildu ditugu.

**TTIPI TXARTELA**: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



# ORDOKI

## ALTZARIAK

**Estilo ugariko mobleak**

Larunbat goiz eta arratsaldez irekia

**ERAKUSKETA**
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
**SALTOKIA**
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: **948 637780**
NA-31780 **LESAKA**

**Armairu enpotratuen erakusketa berria Bittirian**





*ESKAINTZA*
*BEREZIAK*
*PLAZA*
*ZAHARREAN*
*ZAHARBERRITZE*
*OBRENGATIK*



# ZUBIONDO JATETXEA

••••

**350 lagunendako bankete jantokia**

••••

**160 lagunendako sagardotegi-erretegi-jantokia**

••••

**40 lagunendako erreserbatua karta bereziarekin**

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 435
sagardotegia jatetxea sagardotegia





**EGUNEKO MENUA ETA KARTA**

**Dagoeneko zabalik!**



DATUAK

- *1949ko maiatzean Beran sortua, 25 urte daramazki Beran eta inguruko herrietan argazkiak ateratzen.*
- *Urtarrilaren hondar aldera Zaragozan banatuko diren Goya sarietarako Goikoren argazki bat proposatu dute.*
- *Berriki, gainera, 5 argazki saritu dizkiote Espainiako argazkilari profesionalen lehiaketan, 1.400 argazkiren artean.*
- *Sari hauek denda ireki zuela 25 urte betetzen direlarik ailegatu zaizkiola eta, kontent agertu da Goiko, «denbora guzi honetan egindako lanari sari polita da».*

Testua eta Argazkia:
**Asier GOGORTZA**

**Martin GOIKOETXEA** *Berako argazkilaria*

# "Oraindik zuribeltzarekin maitemindurik nago"



«Toki gehienetan egoten gara eta herriaren historia biltzen dugu argazkietan».

**Emaitza onak lortu dituzu Espainiako Argazkilari Profesionalen Federazioaren lehiaketan.**

Bai. 1.400 argazki aurkeztu dira gai desberdinetan; erreportaia soziala, ezkontzak, industriala... eta 110 soilik sartu dira azken txanpan. Nik 8 argazki bidali nituen eta 4 saritu dituzte. Horietako bat argazkilaritzako Goya sarietarako proposatu dute.

Nominazio bat jasotzea neretzat garaipen handi bat izanen litzateke. Gero Goya eskuratzea ia ez, zeren arazo aunitz izanen genuke etxeko apaletan tokia bilatzeko eta... badakizu.

**Non eta nola ateri zenituen argazki sarituak?**

Batzuek argazki industrialak dira eskualdeko fabrika batean ateriak. Bertzeak Uxueko erromeriakoak, hango material dexente daukat, dena zuribeltzean, noski, oraindik zuribeltzarekin maiteminduta dagoen horietakoa bainaiz. Orain iduri du denak koloretan izan behar duela, edo digitala, bainan nik oraindik xuribeltza maite dut eta nere kontura egiten ahal ditudan lanak horrela egiten ditut. Bertze batzuk ezkontzetakoak dira, pose desberdinetan. Ez zait gustatzen argazki klasikoetan gelditzea, berritzaile izatea baizik.

**Noiz eta non hasi zinen argazkilaritza ikasten?**

70. hamarkadan hasi nintzen. Kamara erosi eta komunean lehendabiziko argazkiak errebelatzen hasi nintzen. Gero ikastaroak egin nituen Madril eta Bartzelonan. Han barna lagun hagitz onak egin ditut, eta aunitz ikasten da bertzeen lanak ikusiz. Hasieran oroitzen naiz sekretu aunitz zegoela, inork ez zuen deus erran nahi, iduri zuen zerbait kontatuz gero lana kenduko zizutela. Bainan gaur egun argazkiak lasai ederrean erakusten dira, eztabaidatu, kritikatu... modurik hoberena da. Nik hori ikasi dut, argazkilaritzan ez dagoela sekreturik.

> *"Orain iduri du denak koloretan izan behar duela, edo digitala, bainan nik nere kontura egiten ditudan lan guziak zuribeltzean egiten ditut."*

**Dendak 25 urte beteko ditu aurten. Zer azpimarratuko zenuke ibilbide honetatik?**

Hasi gineneaan erokeria zen lokal bat errentan hartu eta horrelako negozio bat montatzea, ez genekien nola aterako zen. Andrea eta bion artean argazkilaritzarekin hastea erabaki genuen.

Denbora guzi honetan anekdota pila bat izan dira. Ohitura dut horietako batzuk apuntatzeko, eta egunen batean beharbada liburu ttiki bat agertuko da, izenik jarri gabe, noski.

Azken finean toki gehienetan egoten gara eta herriaren eta eskualdearen historia biltzen dugu gure argazkietan.

**Euskal arrazako zerri pintto beltza omen zen gure inguru honetan gehien hedatua zegoen zerria duela 50 bat urte arte. Mendi ingururako egokiagoa izan arren, bertze arrazako zerriekin konparatuz produktibidade ttikikoa zen: haztea gehiago gostatzen zaio eta banaz bertze umaldiko bortz zerrikume bertzerik ez ditu egiten. Honela, errentagarritasun handiagoko zerriekin hasi ziren lanean baserritarrak eta pittanaka-pittanaka euskal arrazako zerria galtzen joan zen. Desagertzeko punttuan ere egon da, baina Nafarroako ITGk berreskuratzeko saioa egin du azken sei urteotan. Oronozko Zubialdea baserrian zazpi zerrama eta aketz batekin hasi ziren duela bi urte. Gaur egun, berrogei eme eta lau ar dituzte, eta zerrikia merkaturatzen hasi dira.**

TESTUA: *AITOR AROTZENA*
ARGAZKIAK: *ITG ABELTZAINTZA*



## ZUBIALDEA BASERRIA ORONOZEN

# Zerri pintto beltza bizirik eusteko ITGren saiakera

Mende hasieran, bertze arraza batzuekin batera, Euskal Herria osoan hedatzen omen zen euskal arrazako zerri pintto beltza. Nafarroako mendialdeko zerriak, *«bertako zerriak»*, ezaugarri onekoak zirela zioten. Honela, 1939an Nafarroako Diputazioko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak egindako ikerketa batek zera zioen: *«Gure probintzian, jatorri ezberdineko zerriak ditugu; badira txarrak, Lizarraldean; erdi mailakoak, Erriberan eta onak Mendialdean»*.

Nafarroako mendialdean aspalditik hazi da zerria eta Nafarroako lehen zerri-granja *ofiziala* ere Bertizaranan sortu zuen Nafarroako Diputazioak 1889. urtean. Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak maiatzaren 18an egindako batzarrean, Oieregiko Reparazeako jauregian eta Ustaritzeneko lurretan, *«Baztan-Bidasoa erreka bazterreko azienda aberastasuna bultzatzeko granja-modeloa»* sortu zuen. Bertako arraza garbiko zerriak erosi eta Ingalaterratik Yorkshire eta Berkshire arrazako zerriak ekarri ziren, Pasaiako portutik barna, bertakoekin gurutzatzeko. Ingalaterra eta Frantziako zerri arrazekin egindako gurutzaketa hauetatik, zerri hobeak sortu ziren eta fama handia hartu zuten Baztan-Bidasoan hazitakoek, *baztandar arrazako* izenarekin ezagunak.

Zerri horien artean zegoen jatorri frantsesa zuen euskal arrazako zerri pintto beltza. Baina, errentagarriagoak suertatzen ziren bertze zerrien konpetentziaren ondorioz, desagertzen joan zen. Gaur egun, bi lekutan bertzerik ez dago Euskal Herrian, Baztanen eta Aldude inguruan. Galtzeko

zorian izan ondotik, ITGk 1998tik Oronozko Zubialdean egindako saiakerak bere lehen fruituak eman ditu eta zerrikia komertzializatzen hasia da. Bere urdaiazpikoa probatu dutenen erranetan, zapore eta kalitate berezikoa da, iberikoaren iruditsukoa.

### Mantsoago hazi, zingar gehiago eta mendirako egokia

ITGk egin eta Navarra Agraria aldizkarian argitaratutako azterketen arabera, zerri pintto beltza mendialderako egokia da, klima kaxkarrenetan ere ongi laketzen baitu. Arraza garbikoa denez, grasa edo zingar gehiago du eta gusto berezia ematen dio horrek bere haragiari. Izan ere, ITGko Juan Carlos Iriarte narbartearraren ustez, *«azken urteetako kontsumo ohiturak, zingarrik gabeko zerrien alde egin du, haragiaren kalidadearen kaltetan»*.



1907an, Elizondon, feria egunera eraman zituzten zerriak. Ezkerraldekoa, euskal arrazako zerri pinttoa da eta eskuinekoak Baztango zerri xuriak. Foto Mena

Alde negatiboan, ez du zerri industrialak bezain hazkunde azkarra. Iriartek dioenez, *«urtea behar du 130 kilora ailegatzeko. Zerri arruntak urte erdian 110 kilo hartzen ditu»*. Ondorioz, produkzio kostuak handiagoak dira eta azken produktua garestiagoa da. Azterketak dioenez, errentagarria izateko abeltzainari kiloko 300 pezeta ordaindu beharko litzaioke, zerri arruntarengatik ordaintzen denaren bikoitza kasik. Urdaiazpiko kiloa 3.000 pezetara ailegatzen ahal da merkatuan.

Azken urteotan zerriaren sektoreak krisi larria bizitu du. Produzitutako zerri bakoitzak sortzen duen etekina gero eta ttikiagoa da. Horregatik zerri haztegiek gero eta handiagoak izan behar dute, bizibidea atera nahi baldin badute. Ondorioz, famili-esplotazio ttikiak desagertzen joan dira egunetik egunera.

### Dibertsifikaziorako baliagarria

Gure inguruko baserri ttikietan, zerri hauek haztea dibertsifikaziorako egokia izaten ahal da. *«Ezaugarri ezberdineko eta kontsumitzaileendako erakargarria izanen den zerri klase hau haztea alternatiba interesgarria izaten ahal da baserri ttikiendako: produzitzen den zerri bakoitzeko etekin handiagoarekin lan egiteko aukera ematen du eta ez dago merkatuko gorabeherei hain lotua»* dio Juan Carlos Iriartek. Frantzian izandako esperientzia aberasgarria izaten ahal da, kalitateko urdaiazpikoak onarpen zabala lortu baitu harategietan.



**Vicente GOÑI IRUNGARAI** *Oronozko Zubialdea*

## *«Errentagarria izateko laguntzak behar ditu zerri arraza honek»*

**Nola gogoratu zitzaizun euskal arrazako zerriak baserrian paratzea?**
Egia erratek o, zerriak ITGrenak dira, bai euskal arrazakoak eta bai arraza normalekoak. Nik zaindu eta bazkatu bertzerik ez ditut egiten. Gero, Unibertsitatekoak etortzen dira analisi konparatiboak egitera. Bata eta bertzearen arteko ezberdintasunak aztertzen dituzte.
**Horren arabera, zein ezberdintasun nagusi dago bi arrazen artean?**
Euskal arrazako zerri pintto beltzak zingar gehiago du, haragia kalidade onekoa da. Mantsoago hazten da. Hasieran, arraza garbikoak direnez, hilik sortutako eta esnea edaten zuten bitartean hildako zerrikumeen kopurua handia zen, odol kidetasunaren ondorioz. Baina hori hobetu da, Frantziatik aketzak ekarri behar izan badira ere. Alimentazioa ongi zaindua dute. Baztandarra Kooperatibak pentsua espres egiten du, kasik kartara eta antibiotikorik ez zaio sartzen.
**Lehenago arraza hau arrunta omen zen inguru honetan. Bertze baserriren batean ezagutu duzu?**
Nik ez, baina adineko jendeak zerri hori aunitz usatu zela dio. Dena den, orai gurean bertzerik ez dago inguru honetan. Frantzia aldean ere bada. Alduden granja haundi bat bada, bi langilerekin. Hango Gobernuak ordaintzen du.
**Dirulaguntzak beharrezkoak dira, beraz, zerri hau produzitzeko?**
Kalidade onekoa da, baina garestia ateratzen zaio produktoreari eta erosleari. Aketzak Frantziatik ekarri behar dira eta ez da batere merke. Momentuan, dirulaguntzak beharko ditu aitzinera ateratzeko. Merkatua egin eta zabalduko da, baina bitartean…

## IRAKURLEAK MINTZO

**AEKko irakasle baten abenturak eta kalenturak:**

Euskaltegira ailegatu eta didaktika bilera hastera doa. Gaur asistentzia, puntualitatea eta helburu komunikatiboen segimenduaz arituko gara. Bazkalondoan kartelak jartzera joan gara. Aupa! Ordu batean lana bukatua! Kafea hartzeko denbora ere izanen dugu! Kafea hartu ondoren zentroko bilera. Gaur jorratu behar dugun gai zerrendak amaigabea dirudi: Zozketa, medio propioak, Korrika, euskaltegiko irteerak, ikastaroak, tailerrak... Beti bezala serio serio hasi dugu bilkura. Zozketari dagokionez, betikoa, salduko ote ditugu boleto guztiak aurten?... Hala beharrez!

Hurrengo puntua: Korrika kulturala. Arduradunak galdera majikoa egin du: Zer antola dezakegu? Bakoitzak bere ideiak bota eta azkenean bideragarrienak eta merkeenak ere (diru kontua dela eta) aukeratu beharrean gaude.

Gero Korrika dator! Hasi beharko dugu ere horretan buru belarri: Kilometroak neurtu, saldu Korrika lagun... eta Korrika ttikia?

Hurrengo puntua: medio propioak. Ze produktu erakargarri eta miragarri «asma» dezakegu euskaltegian diru pixar bat lortu ahal izateko? Ideiak botatzen hasi gara: AEKzatoa, sexu-egutegiak, AEK kondoiak: «goza ezazu euskaraz», irri algarak...

Desbariatzen hasiak gara jada. Orduan arduradunak beti bezala, seriotasun pixka bat eskatu eta azkenean, AEK-boligrafoak salgai jartzea erabaki dugu. Bai orijinalak!

Hurrengo puntua: Ikastaro eta tailerrak. Beno, medio propioetatik ateratako diru pixar horrekin sendabelar tailerra antolatzea gogotu zaigu. Ongi! Baina bakarrik hori antolatuko dugu? Dirurik ez badugu ere irudimena erabiliz edota ezagunen baten laguntzaz baliatuz zerbait lortuko dugu. Lixto! Ziza eta onddo ikastaroa ere bidean dugu. Antzerki tailerra ere bai, primeran!

Animo, bukatzeko gutti falta da eta! Euskaltegian hilabetero egiten ditugun irteerak (herriko biztanle ororentzat ere zabalik daudenak) zehaztu behar ditugu: Eskiatzera joatea, zubi-saltoa, raffting, mendi-irteerak... benetan interesgarriak! Azkenean bileraren amaiera, bazen garaia!

Baina, baina... oraindik klasea prestatzea gelditzen zait! Kafe-press bat hartu lankideekin eta gogoz lanari ekin diot. Ea, zer landu behar dugu gaur? Entzumena eta mintzamena. Ongi! Zer egingo dut Nor-Nori-Nork lantzeko? Nire ondoan dagoen irakasleari laguntza eskatu eta segituan joko dinamiko eta polita azaldu dit. Eskerrik asko! Klasea prestatu eta bortz minutu ditut lasai egoteko.

Hara, lehenengo ikasleak ailegatu dira. Gelan sartu eta klasearekin hasi, baina nola motibatu egun osoan lanean aritu diren langile euskaltzale zintzo eta fin hauek? Hasteko, joko baten bidez aurreko astean ikusitako nozio batzuk errepasatuko ditugu. Primeran, gustora daude honekin!

Hamarrak jo orduko tripa zorriak ditugu guztiok. Klasea bukatu da, gaurkoz euskaraz nahikoa asetu dira...

Hauxek dira bada, orokorrean AEK-kide baten eginkizun eta erantzunkizunak, euskara irakastea eta sustatzea hain zuzen ere. Hau da gure delitua? Orduan zer, hurrengo delitua euskaraz mintzatzea izango da? Hau erokeria, Alajainkosa!

GOTZONE REKONDO,
JOSUNE ETXEPARE ETA
IGOR PORTU
AEKKO KIDEAK

## KOLABORAZIOAK

**Patxi PEÑA** *Gartzaingo alkate ohia*

# Baztango herri bateko alkatearen gorabeherak



**B**i urteotan Gartzainen egiten edo egiten ez den, eskatzen edo eskatzen ez den, lortzen edo lortzen ez denaren arduradun izan naiz. Batzarre, auzolan, bilera, proiektu, abisu, telefono-dei, Elizondo eta Iruñera bidaiak, aurpegi txar aunitzen ondotik, herriari zerbitzu hau egitea merezi duela uste dut. Batez ere, politika eta herritarren arteko harremanak nola funtzionatzen duen lehen eskutik ikusteko. Eta konkretuki, Baztango gobernu modua ezagutzeko. Hemengo autogobernu modua ez baita leku aunitzan izanen. Boterea hain banatua dago, herritarrak beti eskura duela norbait bere eskariak erabaki lekuetara ailegarazteko. Hona arte dena positiboa da, baina nik ez dut hau egiten loreak botatzeko. Bi urtez alkate izan ondotik, gobernu modu honek duen potentzialaren zati ttiki bat ere ez dela aprobetxatzen uste dut. Beno, ardurak baztertzeko eta aurpegia ez emateko balio du. Horretarako gaude alkateak, inolako ofiziorik eta irabazirik gabe jokoan sartzen garenak, denboraz kanpoko eta baliorik gabeko arau (Baztango Ordenantzak) batzuren pean.

Junta Generala lehen zenaren burla hutsa da. Hemen ez da deus erabakitzen eta ez dago horretarako kontzientziarik ere. Garai batean aurrekontuak eztabaidatu eta onartzen zituen, baina denbora gutian, junta honetako kideen iritziaz ez da inor arduratzen (...).

Alkate lana bete duten bi urteetan ez dut inolako deirik jaso Gartzaingo premiei buruz galdezka (barkatu, Hirurteko plan famaturako eskatu iritzia eskatu zidaten, baina nahi zutena eskatu zuten). Beraz, pentsatzeko modua hau dela uste dut: *«ez bada eskatzen, ez da beharrik»*. Honela, herrien arteko ezberdintasunak sortzen dira. Gogoz kontra ari den alkateak ez du lan handirik eginen eta gogoekin dagoen alkateak gauza gehiago lortuko ditu.

**Herri bakoitzari urtean diru gehiago eman, aurrekontuak prestatzen partehartze handiagoa izan dezala eta astero egun eta ordu gehiagoz atentzioa eskaintzea.**

- Bidezkoa da aberastasuna banatzeko modu hau?
- Aberastasun banaketa hau alkatea Udaletxera doan aldien edo herriaren egiazko premien araberakoa da?
- Herritarrek badute nolabaiteko konfidantzarik horrelako erakundeetan?

Erantzun zaileko galderak direnez, hau proposatzen dut: Alkatearen irudia indartzea, botere gehiago emanez. Adibidez, herri bakoitzari urtean diru gehiago ematea, aurrekontuak prestatzen partehartze handiagoa izan dezala eta astero egun eta ordu gehiagoz atentzioa eskaintzea.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Euskaldunon Egunkaria 01eko urtarrilak 2

*«Egurra nahiago dut, gehiago sentitzen dudalako, baina anitzetan egurrak menperatzen zaitu. Burdinarekin dena egin daiteke. Gauza berria eta oso interesgarria izan da; burdina beroagoa da, erraza lantzeko, egurrarekin askoz denbora gehiago eman behar da».*

*«Haurrekin lan egitea izugarri gustatzen zait, buruan hainbat gauza harrigarri dituzte eta, ondorioz, asko ikasten da haiekin. Era berean, museoak eta artea ezagutzen erakusten badiegu, gerora emakume eta gizon askeak izanen dira, eta ez hutsak».*

**Xabier SANTXOTENA**
Bozateko eskultorea
Egunkaria 01-01-02

*«Gauzak gehiago baloratzen ikasi dugu, baina ez Mohamed-ek zuzenki erakusten zigulako, baizik eta guk hango bizimoduaren berri bagenekienez, saharar ume bat izateak asko lagundu zigun hemen gauza txikiena ere baloratzen».*

**Ainara GASTEARENA**
Leitzakoa
Marmari Leitzako Aldizkaria

## 11 GALDERA LABUR



**Mikel DALBRET**
Margolaria
SARA

- **Tunisian sortua...**
- Eta gero Euskal Herrirat etorria.
- **Axular, Barandiaran, Labaien, Dalbret...**
- Umiltasunez, Axular.
- **Olentzero edo Papa Nöel?**
- Olentzero.
- **Eta zer ekarri zaitu?**
- Arrakasta.
- **Artea, afizioa edo ofizioa?**
- Ofizioa eta afizioa, biak.
- **Artetik bizi daiteke laguntzarik gabe?**
- Zaila da.
- **Euskaldun berria zara. Zer suposatzen du euskarak zure bizitzan?**
- Aukera argi eta garbi bat.
- **Baratzean, artez edo maitasunez?**
- Atseginez.
- **Mitologia, zergatik paisaiarik ez?**
- XIX. mendean margotu zituzten paisaiak ezin hobekio.
- **Sara edo Zugarramurdi?**
- Bat da emaztea, bertzea maitalea.
- **2001 urteko, zer da zure agiantza?**
- Nere agiantza sekretuan nahiago dut gorde. Gauza batean atxikimendu sutsua baldin baduzu, agian zabaltzerakoan idei hori ez da gauzatzen; supertizio kondu!

Lanchas
· Parketak - Tarimak
· Kutxillatzea eta bernizatzeak
· Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735



ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA
Boda eta banketeak ematen dira




✆ 948631076 • BERA

PIKABEA pinturak
Molinero drogerian galdetu
Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu
· Fatxadak
· Barne dekorazioa
· Pintura orokorrean
Izpoz 8 • ✆ 948 630240 - 948 631495 • BERA

Haritza
belardenda
Mediku naturista kontsulta
Masajista
Legia 1, behea • BERA • ✆ 948 630652



EKAITZA
Hostala • Kafetegia
Gelak TB eta bainuarekin
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

## ERREPIDEAK

# Belateko tunelek ez dituzte su-hiltzaileek aholkatutako segurtasun neurriak betetzen

### Ez dute larrialdietarako aterabiderik, ezta suteetara ailegatzeko biderik ere

TTIPI-TTAPA

Belateko tunelak ireki zirenetik hiru urte bete direnean, Nafarroako Gobernuak larrialdietarako plana egitea erabaki du. Hau da, idatzi batean bilduko dira nola gerta daitekeen istripu bat, zer egin ez gertatzeko eta zer egin gertatzen bada. Baina adituek diotenez, Belateko tunelek ez dituzte gaur egun eskatzen diren segurtasun neurriak betetzen, duela hamar urteko irizpideekin eraikiak baitira.



Adituek diotenez, tuneletan 200 metrotik larrialdietarako aterabide bat behar da guttienez. Belateko tunelak dituen ia 3 kilometrotan ez dago bakar bat ere.

Artxiboa

### ERREPIDE ARRUNTETAN BAINO ISTRIPU GUTIAGO

Tuneletan, errepide arruntetan baino istripu gutiago gertatu ohi da. Hiru urte hauetan, kamioiren batek bazterreko pareta ukitu du, baina ez da deus larririk izan. Jendeak arreta handiagoz gidatzen omen du tuneletan sartzerakoan, abiadura ere mugatua dago eta argi aunitz dute. Baina denok dakigu istripua gertatzen denean zein larria suertatzen ahal den. Beldurrik handiena suak sortzen du. Alvaro Miranda, Herrilan Departamenduko zuzendari nagusiak aipatu duenez, *«zenbait gauza elkartu behar dira: lehenik bizpahiru autoren arteko istripua eta, horren ondorioz, sua piztea. Ez da errexa gertatzea, baina gertatzen ahal da»*.

Dena den, Herrilan Departamendutik ez dirudi Belateko segurtasun neurriak hobetzeko inbertsio handiegirik eginen denik. Mirandak dioenez, *«garrantzitsuagoa da dirua errepide arruntetara bideratzea, urtean ehun hildako baititugu... hori da eskandaloa»*.

### SU-HILTZAILEEN KEZKA

Larrialdietan parte hartzen duten su-hiltzaile eta medikuak, ordea, kezkatuak daude. Istripu arrunt batean ez litzateke arazorik izanen: trafikoa moztu eta bertze edozein istriputan bezala jokatu beharko litzateke. Baina suak egoera zailduko luke, minutu guttitan kea zabalduko bailitzake zuloan. Gainera, sute handi xamarra izanez gero, 400 eta 1.000 gradu bitarteko tenperatura hartzen ahal du tunelaren barnealdeak. Su-hiltzaileen jantziak 60 gradu bitarteko tenperaturetarako prestatuak daude. Adituek diotenez, *«tuneletan arras garrantzitsua da jendea lehenbailehen kanpora ateratzea. Larrialdiko aterabideak beharko lirateke guttienez 200 metrotik. Gainera, ongi seinalizatuak egon beharko lirateke, gidariek ez baitakite non dauden eta nondik atera behar duten»*. Belateko tunelak 2,9 kilometro ditu eta Almandozkoak 1,2. Ez dute larrialdietarako aterabide bakar bat ere. Kasurik larrienean, Belateko tunelaren erdi - erdian sua gertatuko balitz, gidariek kilometro terdi egin beharko lukete zulotik ateratzeko. Su-hiltzaileendako lana ere ez litzateke errexa izanen, kasu horietan ez baita deus ikusten kearen ondorioz.

Hori bai, Belaten 33 kamara daude eta tenperaturaren gorabeherak somatzen dituzten laser izpiak. Ur tuboa eta 59 iturri ere badaude barnean, baita aparra eta estintoreak.

PRODUCTOS ARTESANOS
ERROTAZAR
Eztegara 3 • Tfnoa: 948 630 198 • BERA
ZELAIA Harategia
Agerra Auzoan

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 948630083 BERA

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea
Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ttipi-ttapa internet

## BERA





### Akordeoi-jole trebeak

Berako akordeoilariek emaitza onak eskuratu dituzte Gipuzkoako Akordeoi Lehiaketan. Estitxu Pinatxok infantiletan 2. saria lortu zuen, eta Ana Perugorria ere 2. izan zen juniorretan. Bertzetik, ikasle gazteago hauek ere urrezko eta zilarrezko dominak lortu zituzten: Sergio Hernández, Silvia Galtzagorri, Aitziber Esnaola, Naiara Aldazabal, Saioa Oses eta Nahia Esnaola. Zorionak denei!

# Ortziral honetan aurkeztuko dute Shisha Pangma 2001 espedizioa

## 8.046 metroko mendi honi nola aurre egin azalduko dute

ASIER GOGORTZA

Heldu den apirilaren 1ean abiatuko da Himalaya aldera Martiko-Shisha Pangma 2001 Bortzirietako espedizioa. Han 8.046 metroko mendi puska izanen dute esperoan, gailurra lortuz gero, euren bigarren zortzimilakoa izanen dena.

Xabier Zubieta, "Loro" Pikabea, Patxi Pikabea, Sabino Korta eta Andoni Zulaikak osatuko dute espedizioa. Lehenbiziko lauak Gasherbrum II mendira egindako espedizioan parte hartuak dira, bainan Andoni Zulaika zestoarrak bere lehen zortzimilakoa izanen du hau.

Alkaiaga industrialdeko Martiko fabrikan eginen dute aurkezpena, arratsaldeko 7,30etatik aitzinera. Espedizioari buruzko xehetasunak azaltzeaz gain, mendizale hauen irudiak erakusten dituen bideo bat izanen da ikusgai.

### Asteburu honetan zer gehiago?

Ortziralean bertan, hilak 12, barandilla lehiaketako sari banaketa eginen da ilunabarrean kultur etxean. Egun horretatik urtarrilaren 20a arte ikusgai egonen dira lehiaketan parte hartu zuten proiektu guziak. Ordutegia, betikoa, egunero arratsaldeko 6etatik 8ak arte, igandeetan ezik.

Biharamunean, ilbeltzak 14, haurrek hitzordua izanen dute Kultur Etxean bertan. "Asterix eta Obelix Zesarren aurka" filmea emanen dute arratsaldeko 5etatik aitzinera.

Igandean, azkenik, Lezoko Orratx antzerki taldeak Dario Fo idazlearen obra bat taularatuko du arratsaldeko 8etan: "Bozinak, tronpetak eta zalaparta".

### Laster inauteriak

Aurten otsailaren azken asteburuan ospatuko dira iñauteriak Beran. Lehenbailehen hasi mozorroak prestatzen.





### Basurde jatea

Ehiza eta Arrantza Elkartekoek basurdea hil zuten abenduan eta Alkaiagako Matxinean puskatu eta garbitu zuten. Gero otordu eder bat egiteko adina izanen zutela iduri du.

### flash

**Udaleko zergak**
Urtarrilaren 31a baino lehen ordaindu beharko da 2000ko 3. hiruhilabeteko uraren ordain-agiria. Epez kanpo ordainduz gero exekutibo bidez kobratuko dituzte zergak, premiamendu errekargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertzelako gastuak gehituta.

**Gauez...**
herriko eta inguruko bideetan oinez nahiz bizikletaz jende franko ibiltzen dela eta ia inork ez duela eramaten argi bereizgarririk ohartarazi du Udalbatzak. Beren kezka agertu dute gertatzen ahal diren istripuengatik, eta gainean beti isladatzaileren bat eramatea gomendatu dute, batez ere espaloirik gabeko bideetan.

**Telefono berria liburutegian**
Hemendik aitzinera 948 625 502 izanen da liburutegiko telefono zenbaki berria. Kultur Etxeak, berriz, lehenagoko zenbakiarekin segituko du: 948 631 222.

**Euskal presoak Euskal Herrira...**
ekartzea eskatzen zuten ikur guziak kendu dituzte eguberri hauetan. Alkateak kuartelean salatu zuenean, ia norbaiten susmorik ote zuen galdetu zioten.

© 948 631462 Altzate 1 • BERA
Xirgil

Ortziraletan, 10etan
Mus Txapelketak
ERREKALDE ostatua
Tfnoa: 948630259 - BERA

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 948630018 • BERA

## LESAKA

# Bi albiente lanpostuak betetzeko deialdia egin du Herriko Etxeak

Proposamenak urtarrilaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira

AITOR AROTZENA

Herriko Etxeak bi albiente lanpostu betetzeko lehiaketa deialdia egin du. Interesatuek urtarrilaren 15a baino lehen eman behar dute izena udal bulegoetan. Bete beharreko baldintzen artean, B-2 eta A-2 gida baimenen jabe izatea edo, gizasemeek guttienez 1,70 metroko altuera izatea eta emakumeek 1,65 daude.

Behin hautagaiak onartuta, otsailetik aitzinera eginen dira lehiaketako probak. Euskara meritutzat hartuko da kontuan. Bi ariketa eginen dira. Lehenbizikoan, aitzinetik emandako gai batzuen inguruko galderak eginen dira eta gero, matematika arazoak erantzun beharko dituzte. Bigarren ariketan, ariketa fisiko batzuk egin beharko dituzte albiente gaiek.

Aukeraketa proba hauek gainditzen dutenek oinarrizko formazio ikastaroa eginen dute Nafarroako Polizia Eskolan. Ikastaroak gehienez bederatzi hilabete iraunen du, eta hilabete bakoitzeko 90.000 pezetako beka emanen zaie partehartzaileei. Formazio ikastaro honek 70 puntuko balioa izanen du eta 35 puntura ailegatzen ez direnak kanporatuak izanen dira.



**Susperregi eta Dagerre irabazle Batzoki elkarteak laugarren aldiz antolatutako pala txapelketan**

Susperregi hondarribitarrak eta Dagerre beratarrak irabazi dute Batzoki elkarteak laugarren urtez antolatutako paleta goma txapelketa. Abenduaren 30eko finalean 35-23 irabazi zieten Urdazubiko Larralde eta Zigako Lakostari. Hirugarren posturako lehian Igantziko Txoperena anaiek 35-15 irabazi zieten Etxegoien eta Zapiain gipuzkoarrei. Argazkia: Aitor Arotzena

### Landazelaia itxuraldatua

Beko-Errota baserri inguruak begiratuz gero itxura aldaketa somatu da azken hilabeteotan. Landazelaian bi familiako etxebizitzak egiten ari dira eta, berriki, Zambra auditorio berriaren zola ere ematen hasi dira. Aldaketarik gabe segitzen duena, gasolindegia eta Villa Isabel etxearen arteko babes ofizialeko etxebizitzen afera da. Urte akabaila aldera bilera batera deitu zituen Zósimo Zaratiegi eraikitzaileak zerrendan duela bi urte terdi izena eman zuten guziak. Interesatu aunitz agertu zen Herriko Etxera, baina eraikitzailea bera ez. Dena den, izena emana duten guziei telefonoz deituko omen diete, egitasmoa zertan dagoen azaltzeko. Otsaila aldera lanean hasteko intentzioa omen dute.

### Bideogintza ikastaroa

Lesakako Herri Eskolak antolatu du urteko lehen ikastaroa. Bideogintza ikastaroan bederatzi lagun hasi dira, Txema irakaslearekin. Gidoiak eta grabazioak egiten, montatzen eta editatzen ikasiko dute ikastaroan.

## flash

**Herrilurrak erabiltzeagatik** abeltzainek aurten ordaindu beharreko tasa berriak ezarri ditu Herriko Etxeak. Hektarea bakoitzeko urteko 7.068 pezeta ordaindu beharko dute abeltzainek. Behi edo zaldi azienda bakoitzagatik 177 pezeta ordainduko dituzte eta ardi azienda bakoitzeko 23 pezeta.

**Bideak eta mendi pistak** erabiltzeagatik ere tasa berriak jarri dira. Egurra ateratzeko erabiltzen direnean, metro kubiko bakoitzeko 140 pezeta ordaindu beharko da. Eraikuntza materiala eta makinak pasatzeko, Tonako 140 pezeta ordainduko da.

**Ur-hornidura tasak**
Urarengatik ere, noski, ordaindu behar izanen da aurten. Etxerako uraren kasuan, 40 metro kubiko bitarte 826 pezeta ordainduko dira. Hortik aitzin, metroko 33 pezeta. Erabilera industrialerako metroa 43 pezeta ordainduko da. Kasu guzietan, hornidura zerbitzuaren mantenimendurako 310 pezeta ordainduko dira. Etxerako ur-hartzea 10.737 pezeta kobratuko da eta industriarako 26.841.

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ANA
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
948637573 - LESAKA

Lurrindegia
Marian Mendiberri
Estetika

## ETXALAR

# Olentzero ailegatu zaigu aurten ere

### Ela-Ela kantatuz ibili ziren herriko haurrak abenduaren 31n

JOSEBA ETA NEREA

Abenduaren 24a, berexia izaten da bai haur eta bai helduentzat. Izan ere, herri guzietara bezala Etxalarrera ere ailegatu zen Olentzero. Lehengo urteetan Olentzero bakarra egin ohi zen arren, aurtengoan hiru ikusi ahal izan ditugu. Gabon gaua urteroko mezarekin hasi zen eta ondotik, bildutako guziek, arkupean, lehenbiziko aldiz kantatu zuten "Olentzero" kanta. Horrela, hasiera eman zitzaion herriko bueltari. Beti bezala, herriko txistulari eta trikitilarien laguntzaz, ordu bat exkax iraun zuen kalejira antzinera eraman ahal izan zen. Herriko gazteek etxez etxe bildutako diruarekin Elutsa ostatuan egin zen luntxarekin eman zitzaion bukaera egunari. Aipatu, inoiz baino partehartze handiagoa izan zela; jendearen ugaritasunaz gain baserritarrez jantzitako guraso aunitz ikusi ahal izan baitzen.

### Etxalarko telefono gida banatu du Euskara Batzordeak

Euskara Batzordeak herri nahiz baserrietako telefono guziak biltzen dituen gida argitaratu berri du. Helburua etxe guzien izenak ongi idatzirik ikustea izan da eta modu honetan, gainera, herritarroi aunitzez ere erraxagoa suertatzen zaigu telefonoak harrautzea. Erran, akats bat baino gehiago badu ere, zuzenketa-orri bat ateratzeko intentzioa duela Euskara Batzordeak laister.

### Kartak berandu banatzen ditu orain Korreosek

Jakina da herriak Korreosekin hainbat arazo badituela. Baina oraingoan ez dago haserre baserrietara joaten ez delakoz. Azken bolada honetan jendea kexatzen da gutunak berandu iristen direlakoz edo iristen ez direlakoz. Hau da, Korreosek Etxalarren zigilua eman eta handik aste batera edo beranduago iristen zaizkigulako auniztan eta bertze batzutan ez zaizkigu ailegatu ere egiten, bilera-deialdiak, aktak, etab. Beraz, lerro hauen bidez hainbat herritarren kexa bildu dugu eta dagokionak, arazoan esku hartzea eta konponbidea bilatzea eskatzen dugu.





**Ela-ela, norda-norda...**
Kopla zahar luze hauek kantatuz aritu ziren urteko azken egunean herriko haurrak. Etxalarren ohitura den bezala atez-ate ibili ziren herri guzian barrena urtatx eske. Baserritarrez jantzitako hainbat haur-talde ikusi izan ahal genuen goiz guzian.
Argazkia: Nerea Mitxeltorena

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 948 637 030 • LESAKA
IGANDE GOIZETAN IDEKITA DUGU
• Liburuak
• Papertegia
• Tabakoa
• Plastifikazioak egiten ditugu
• FAX publikoa
• Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak
Enkuadernatzeak espiralean ere egiten dira

HARITZPE JATETXEA
✆ 948635235 948635038
GOSARIAK - BAZKARIAK - BOKATAK

Egunero idekia. Asteazkenetan atseden eguna.

KOXKILA OSTATUA

Zarandia, 4 - LESAKA

## IGANTZI



Haur Hezkuntzakoak Olentzeroarekin.



### Musika Eskolako haurrak kontzertuan

Azken alean aipatu bezala, Igantziko Abesbatzaren kontzertua izan zen abenduaren 23an. Korutik eta aldaretik egin beharreko bi emanaldien tartean bertako Musika Eskolako haurrek ere izan zuten euren lanen emaitzak eskaintzeko aukera. Txistuarekin, pianoarekin eta, argazkian ikus daitekeen bezala, abesten entzuteko aukera izan genuen. Arg.: Oskar Txoperena

# Eguberriak eguraldi haizetsu eta giro onarekin igaro dira

Udala nekazariekin bilduko da ortziral honetan

OSKAR TXOPERENA

Haurrak dira, zalantzarik gabe, Eguberriak eta beren inguruan datozkigun ekitaldiak ilusio eta gogo gehienez hartzen dituztenak. Eskolara etortzen den Olentzerok, Eguberri egun bezperako eskeak, arratsaldeko kalejirak, eta zer erranik ez, egun horietan hartzen dituzten opariek berezi-ak bihurtzen dituzte haurrentzat Eguberriak. Goitiko argazkian Haur-Hezkuntza taldeko zenbait haur ageri da Olentzerorekin, abenduaren 24ko arratsaldean.

### Zareen zozketak

Eguberrietako bi zareen zozketak ere egin ziren bere garaian eta dagoeneko biak euren jabeen eskuetan daude, ez da oraingoan bigarren zozketaren beharrik izan. Eskolako haurrena Itsesarreko Marcial Telletxeari tokatu zitzaion, 3730 zenbakidun txartela berak erosi baitzuen. Abesbatzarena, berriz, Berara joan zen, Alco enpresaren langile batengana, hain zuzen, 0067 zenbakiarekin. On egin!

### Nekazariekin bilera ortziralean

Ilbeltzaren 12an, ortzirala, arratsaldeko 7tan bilera informatiboa izanen da Herrikoetxean baserritarrei eta herri inguruan aziendak dituztenei zuzendua. Esplotazioak legalizatzeko eman behar diren pausuak azalduko dira eta nekazarien zalantzak argitu.

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214
ETXALAR

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZKUN S.L.
Makinaria eraikuntza
Moldeketak eta despiezoa
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorak, errektifikadorak
Igantziko Bentak • ✆ 948 627572 • Faxa: 948 637508



MARTIKO
Gure baserrietako produktuak
✆ 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA

KAXULA
- Sukaldeko tresnak
- Opariak
- Pinturak
Albistur, 51 LESAKA
✆ 948 63 75 58

ATM S.A.
AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
• Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
• Enbalaketa elementuak eta flejeak.
• Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
• Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
Igantziko Bentak • ✆ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

## ARANTZA

# Larreak hobetzeko eta kanposantua haunditzeko lanak abudo hasiko dira

Haurren antzerkia, Olentzero, Erregeak, mendi mutilen eguna... joan dira Eguberriak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Bertze urte batez joan zaizkigu Eguberriak. Hasiera, herriko haurren antzerkiak eman zien eta gero etorri ziren Olentzeroa eta Erregeak. Abenduaren 24an, arratsaldeko 4etan Olentzero herriko karriketan barna ibili zen eta ondoren, berendua izan zen Zahar Txokon. Eguberri egunean, meza ondoren Olentzeroren besta izan zen plazan, kantak, jokuak... Akautzeko, Olentzeroari su eman zioten, ohiturari eutsiz. Errege bezperan, arratseko 8etan, Erregeen kabalgata iritsi zen eta hurrengo egunean, urtero bezala, mendi mutilen eguna ospatu zen. Eguerdian frontoian aizkora apostua egin zen, Larretxea eta Mindegiaren artean. Ondoren, bazkaria izan zen, Egaña eta Lizaso bertsolariekin eta trikitilariekin.



Herriko neska-mutikoek urteroko antzezlana eskaini zuten. Arg.: Garbiñe

### Larreen hobekuntza

Larreetan egin nahi den hobekuntza lanak lehiaketara ateratzea onartu zuen Herriko Etxeak urteko lehen udal batzarrean. Alkateak, Nafarroako Gobernutik bidalitako proiektua azaldu ondoren, zera erabaki zuen: larreak hobetzeko proiektua onartzea eta proietu hau hilabete batez jende aurrean jartzea. Aldi berean, gonbidapenak luzatu ditu Herriko Etxeak lan hau aitzinera eramateko proposamen ekonomikoak otsailaren 2a baino lehen aurkezteko.

### Kanposantuaren haunditzea

Denbora dexente pasatu da Udalak kanposantua haunditzeko lanen berri eman zuenetik. Orain arte Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio Departamenduaren eskuizan da gaia eta hauek onartu esperoan egon da. Azkenean, ailegatu da baiezkoa. Abenduko udal batzarrean onartu zen 18.593.493 pezetako aurrekontua duen lana (panteoiak eta nitxoak barne). Nafarroako Gobernuak 5.247.000 pezetako dirulaguntza emanen du. Orain, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 26 eguneko epea izanen dute enpresek proposamenak aurkezteko.

### Garbiketa arduraduna

Rosario Agestak eginen du eskola, Herriko Etxea eta medikuaren etxeko garbitze lanak.

### Jubilatuen bidaia

Aitzineko alean aipatutako jubilatuentzako bidaia ez du Arkupeak elkarteak antolatzen, Arantza eta Igantziko parrokiak baizik.




Maderas GOMEN

- Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak
- Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

Zaldubia Poligonoa - IRURITA - ✆ 948 580 645

Zure inguruan klase guztitako intsektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arrato-xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECCIONES
✆ 948630155
BERA

MAGNETOTERAPIA NATUROPATIA

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larru azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK
- Bizkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN



LESAKA

## SUNBILLA

# Medikuaren etxe zaharra saltzeko bigarren enkantea deitu du Udalak

### Urtarrilaren 26an eginen da eta hasierako prezioa 25 milioikoa da

JAIONE ETA ALBA

Medikuaren etxe zaharra saltzeko bigarren enkante deia luzatu du Herriko Etxeak. Urtarrilaren 26an, arratseko 7etatik aitzinera eginen da Herriko Etxean eta haserako prezioa 24,9 milioi pezetakoa izanen da, lehenbiziko deialdian baino lau milioi guttiago. Dena den, interesa duenak, aitzinetik joan beharko du Herriko Etxera, izena ematera eta bi milioi terdi ordaindu beharko du, fidantza gisara.

Medikuaren etxeak bi solairu ditu. Beheitikoan, hirutik bat hartzen du momentu honetan mediku kontsultak. Baina bi urteren buruan kontsulta berria egiteko intentzioa du Herriko Etxeak eta etxe guziaren jabe eginen da eroslea.

Bertzalde, Leku-Eder karrikaren ezkerrean, azkenaurreko eta azkeneko blokearen artean dagoen bidea zuloz betea dago eta Udaletxeak konpontzeko intentzioa dauka.



Medikuaren etxea erosteko lehen enkantera ez zen eroslerik agertu.

Argazkiak: ttipi-ttapa TB

### Olentzero arrakastatsua

Abenduaren 24an Olentzerok bisitatu zuen Sunbilla. Aurten, jende pila bat ibili zen Eguberri kantak abesten, bertze batzuk Olentzero bizkarrean eramaten zuten bitartean. 75 bat pertsona bildu ziren beheko eskolan: trikitilariek, panderojoleek, herriko abesbatzak eta jendeak elkarrekin egin zuten bide guzia. Ilunabar aldera akitu zuten eta Ulibeltzak elkartean berendu ederra izan zen partehartzaileentzat. Urtero bezala, ateratako dirua urtean ekitaldi ezberdinak antolatzeko erabiliko du Antzakaitz kultur taldeak.

Eguberri egunean, gazteak eskean ibili ziren, bazkaldu ondotik hasi eta hurrengoeguna arte. Etxe eta baserrietara joan ziren, aspaldiko bertso batzuk kantatuz, akordeolari baten laguntzaz.

### Iñauteriak geroz eta hurbilago

Urtarrilaren 26, 27 eta 28an ospatuko dira Sunbillako Iñauteriak. Aurten, karroza egiten duten guztiek izena eman beharko diote Juanjo albinteari eta karroza bukatzean faktura guziak aurkeztuz gero, gastuaren zati bat Udaletxeak ordainduko omen du.

Hurrengo alean emanen dugu iñauterietako programaren berri.

**Pertsonaia**

### Nafarroako Euskal Kantu txapelketan bakarlari onena

Joan den urteko abenduaren 16an burutu zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finala. Bertan, bakarlarien artean txapeldun suertatu zen Salvador Arriola, «*Aitak semeari*» kantuarekin. Gainera, publikoak emandako sari berezia ere beretzat izan zen. «*Estilo horretan kantatu nuen bakarra izan nintzen, baina epaimahaiari eta jendeari gustatu zaio*» dio Salvadorrek. Sortzez lesakarra, ttiki-ttikitan hasi zen kantuan. Gaur egun Lesakako Abesbatzako partaide da eta Amaia Zubiriaren «*Hou Pitxu hou!*» diskan ere aditzen ahal da bere abotsa, Lesakako abesbatzako bertze zenbait gizasemeenarekin batera.



Salvador ARRIOLA




APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK

Lesaka-Doneztebe

MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

## DONEZTEBE

# Mourgues eta Estazio karriketan moldaketak egiteko 68 milioi

Ur-hornidura sarea konpondu, zola berritu eta argia sartuko da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Departamenduak 2000. urteko Toki Azpiegitura Planaren barnean sartu ditu Doneztebeko Mourges eta Estazio karriketan egin beharreko moldaketa batzuk. Lanen aurrekontua 68.290.000 pezetakoa da, lan ezberdinetan banatuak.

**UR-HORNIDURA, ZOLA BERRITZEA ETA ARGIA**

Honela, 53.790.000 pezeta bi karrika horien ur-hornidura sarea egin eta zola berria emateko erabiliko dira. Kopuru horretatik, 34.930.000 pezeta Nafarroako Gobernuak ordainduko ditu. Ur-sareari dagokionez, ura banatzeko 245 metroko tuboa sartuko da eta saneamendu sarerako 811 metro. Gainera, suteen kontrako iturria eta etxeetan ura hartzeko bortz leku izanen dira. Bi karriketan asfaltoa emanen da. Galtzaden zabalera sei metro terdikoa izanen da eta metro terdiko espaloiak eginen dira.



**Ezpelura Emakume taldearen zarea Ana Etxeberriak eraman zuen**

Ezpelura Emakumeen taldeak Eguberri hauetan zozketatu duen zarea Ana Etxeberria doneztebarrak irabazi du. Ruiz okindegian egin zen zozketan, 1.352 zenbakia suertatu zen saritua.

Argazkia: Foto Mena

Mourges karrikan trafiko gehiago ibiltzen denez, zola ere sendoagoa emanen da.

Bertzalde, Mourges eta Estazio karriketako argiendako 6.810.000 pezeta bideratuko dira. Aurrekontu horretatik, 4.720.000 pezeta Leku Administrazio Departamenduak paratuko ditu. Estazio karrikan hameka farola artistiko jarriko dira, fundizioan egindako hiru metroko zutabeen gainean. Mourges karrikako argiak berriz, galbanizatutako zazpi zutaberen gainen joanen dira.

Azkenik, 7.680.000 pezeta behe-tentsioko argindar sarea berritzeko erabiliko dira. Kasu honetan, Nafarroako Gobernutik 3.790.000 pezetako dirulaguntza ailegatuko da. Mourges karrikan, lur azpiko kanalizazioa eginen da, ormigoiez estalitako tubo batekin, etxebizitzei hornidura emateko.

### flash

**Mendaur Institututa**

Doneztebeko Mendaur Institutuko DBHko laugarren mailako ikasleen ikasbidairako zozketaren zenbakiak:
- **1 saria:** 10.000 pezeta, 7.812 zenbakiari.
- **2. saria:** zarea, 7.506 zenbakiari.

Sariak urtarrilaren 22a baino lehen bildu behar dira, 948 456005 telefonora deituz.

**Arkupeak elkartearen loteria**

Eguberrietako Loterian Arkupeak jubilatu elkartearen 45.407 zenbakia saritua suertatu da. Pezetako duroa kobratuko dute eta ez hamar pezeta, hasieran zabaldu zen bezala.

**Ur-hornidura Donamarian**

Kontsumitzen den ur metro kubiko bakoitzeko 20 pezeta ordaindu beharko dute donamaritarrek. Ur-hartzea 15.000 pezeta gostako da.

## ITUREN

# Laugarren urtez saritu dute Zubialdeko Isidro Bazterrika

Porc D'Or lehiaketan urrezko domina eskuratu du aurtengoan ere



TTIPI-TTAPA

Espainia osoko zerri hazleak biltzen dituen Porc D'Or lehiaketan urrezko domina berri bat –laugarren urtez segidan– jaso du Zubialdeako Isidro Bazterrika Mutuberria ituundarrak.

Hogeita hamar zerrama baino guttiago dituzten granjetan, zerrama bakoitzeko urtean jaiotako zerrikume kopuruagatik eman diote sari nagusia Bazterrikari, aitzineko hiru urteetan bezalaxe. Izan ere, banaz bertze 26 zerrikumetik goiti sortzen ditu zerrama bakoitzak Zubialdean, normala 22 denean.

## MALERREKA

# Ezpelura emakumeen elkarteak ekitaldi aunitz antolatu zituen iaz

### Familia langileendako lan deialdia egin du Mankomunitateak

TTIPI-TTAPA



**Bertze ikastaro gehienak bezalaxe, Donezteben egindako tapizeria ikastaroak arrakasta polita izan du.** Argazkia: Karmele Tolosa

Ezpelura elkartean biltzen diren emakumeek iazko ekitaldien balantze positiboa egin dute eta aurten ere, bertze horrenbertze antolatzeko asmoa azaldu dute.

Iazkoari dagokionez, martxoan Emakumearen Astearen barnean gorputz irudia eta elikadurari buruzko solasaldiak antolatu zituen. Apirilean, urpekaritzari buruzko erakusketa eta diapositiba emanaldia izan zen. Kantabriako Cavárcenora egindako bidaian 55 lagunek hartu zuten parte. Maiatzean ikastaroen txanda izan zen. Sendabelarrei buruzko ikastaroan hamar lagun izan ziren eta erizain batek eskainitako erlajazio ikastaroan hamabortz.

Uztailean Arcachonera txangoa antolatu zuten, bertako ur-parkea bisitatzeko eta 35 lagun joan ziren. Urrian, ikasturte honetako ikastaroei hasera eman zieten. Donamarian ematen den altzarien zaharberritze ikastaroan bederatzi lagun ari dira, Donamaria, Ituren, Legasa eta Doneztebekoak. 60 orduko ikastaroa izanen dute. Doneztebhen egiten ari den tapizeria ikastaroan 16 lagun ari dira eta hauek ere 60 orduko ikastaroa eginen dute. Ikasleak Doneztebe, Donamaria, Oronoz-Mugairi eta Etxalarkoak dira eta tartean gizaseme bat ere badago.

Donezteben burutzen ari den jostungintza ikastaroan, 24 eta 55 urte bitarteko 14 lagun ari dira, gehienak hasi berriak.

Abenduan, Eguberrietako sukaldaritza ikastaroa eman zuten, hiru egunez. Adin guzietako 27 lagun izan ziren, Burlatako Ostalaritza Eskolako irakasle batek emandako aholku eta errezetak jasotzen.

Gimnasia ikastaroan 24 pertsona ari dira, tartean gizaseme bat.

Erriberrira egindako txangoan, azkenik, 55 lagunek hartu zuten parte. Erriberriko gaztelua bisitatzeaz gain, Vidaurre pasta enpresan eta Cárricas bodegan izan ziren.

### Famili langileen zerrenda egiteko lan deialdia egin du Zerbitzu Mankomunitateak

Famili langileen zerrenda bat egiteko, oposizio-lehiaketa bidez, aldi baterako langileak hartzeko deialdia egin du Malerrekako Zerbitzu Mankomunitateak. Deialdia, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 2000ko abenduaren 29an argitaratu da, beraz, eskaerak auzkezteko epea urtarrilaren 29a da. Eskaerak Malerrekako Mankomunitateko bulegoan aurkeztu behar dira (Merkatarien Karrika, 17 behea - Doneztebe).

Eskaerak egin ahal izateko baldintzen artean autoa gidatzeko baimenaren beharra azpimarratzu du Zerbitzu Mankomunitateak.

### Gazteluko Ostatua enkantera atera du Donamariako Udalak

Orain arte Gazteluko Ostatuan lanean ari zenak utzi eginen duela eta, Gazteluko Ostatua errentan hartzeko lehiaketa deialdia luzatu du Donamariako Herriko Etxeak. Hasierako prezioa, hilabetean 25.000 pezetako errenta da (gehi BEZa) eta proposamenak, urtarrilaren 15eko eguerdiko ordu biak baino lehen aurkeztu behar dira Donamariako udal bulegoetan. Behin behineko fidantza 10.000 pezetakoa da eta lehiaketa irabaziz gero, 100.000 pezetako fidantza jarri beharko da. Beheko solairuko ostatuaz gain, lehen solairuko logelak ere maisterraren esku izanen dira.



**Uxarreko plaza eta eliza.** Argazkia: Aitor








ETXANDI TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

## GOIZUETA

# Zaharren egoitza egiteko asmoa du Udalak

### Urtarrilean izena eman behar du bazkide izan nahi duenak

ESTEBAN AROTZENA

Zaharrak elkartzeko erabiliko litzatekeen egoitza baten beharra dagoela uste du Udalak. Kontutan izan, herriko biztanlegoaren bostetik bat 65 urtetik goitikoa dela, ia berrehun lagun beraz. Horretarako, lehen pausua orain dela hiru urte eman zen, kuartela izandakoan etxebizitza babestuak eraiki eta 100 metro koadroko bajua Udalak beretzat gelditu zuenean, hain zuzen. Lokal eder horri bere garaian oentsatu zen funtzioa eman nahi zaio orain, eta badirudi, abenduaren 29an horretaz hitzegiteko bildutako berrogei lagunen jarreraren arabera, asmoak aurrera eginen duela.

Dena den, alkateak esan zigunez, obrak hasi aurretik benetako eskaria badagoen jakin nahi dute Herriko Etxekoek. Horren berri zehatzagoa izateagatik, balizko egoitza horretako bazkide izan nahiko luketenen zerrenda ireki dute. Hilabete honen bukaera arteko epea dago Udaletxean izena emateko.



**Eskulan ikastaroko lanen erakusketa**
Eskulanetako ikastaroan parte hartzen ari diren 35 emakumeen lanekin erakusketa egin zen abenduaren 30ean Guraso Elkartearen lokalean. Arg.: Esteban

**Eskola, osasun zentro eta Udaletxearen garbiketa**

Orainarte bezala, hurrengo hiru urteetan ere Juli Oiartzabalen gain egonen da herriko eskolak, Udaletxea eta Osasun Zentroa garbitzeko ardura, horrelaxe erabaki baitzuen udalbatzak egindako azken osoko bilkuran. Bi eskaintza aurkeztu ziren. Irabazlearen eskaintza ekonomikoa, bestea baino 50.000 pezeta garestiagoa zen –3.250.000 pezetakoa–, baina honen *memoriak*, besteak baino balorazio hobea jaso zuen adjudikazio mahaikoengandik.

**Apezetxea eta Narbarte txapeldun**

Jon Apezetxea eta Jon Narbarte 12 urteko pilotariek beste bi txapela etxeratu dituzte azken aste hauetan. Estimatuena, seguraski, Burlatan lortutakoa izanen dute, garrantzi haundikoa baita herri horretan jokatzen den torneoa. Dena den, neguko txapelketaren barrenean, Lekunberritik ekarri zutena ere gustora jasoko zuten.

## ARESO

# Saharara bisita egin dute herriko bi familiak

### Udako egonaldia itzuli dute modu honetan

JUANA MARI SAIZAR

Saharako herriari elkartasuna adieraziz eta hango umeei bisita bueltatuz, Aresoko bi famili, beste hainbat familiekin batera, errefuxiatu kanpamendura bidaia egin dute. Ikusi dute hango egoera latza eta gogorra. Inguru guzia hondarra da, uraren eskasia, hango beroa eta benetan, nekatuta daude, ultimatum baten atarian: Paris-Dakar karrera handik pasatzen bada, armak hartzeko prest daude. Saharara itzultzeko gogoarekin bizi dira, ezinezkoa bailitzateke egoera hori jasan ilusiorik gabe. Bestalde, dena ematen dute, bai material baita sentimenduen aldetik ere. Beraien dantzek, kantek eta alaitasunak bizi duten egoera ahaztuarazi egiten dute.



**Jalone Olazabal, bakarlarien artean bigarren izan zen Nafarroako Euskal Kantu txapelketaren finalean, «Eire» abestiarekin.** Arg.: ttipi-ttapa TB

**Pakearen aldeko ekitaldia Gasteizen**

Eliz Probintziako apezpikuek erabaki dute pakearen aldeko ekitaldi bat antolatzea urtarrilaren 13an Gasteizen. Eliz Barruti ezberdinetako kristauak joan daitezke. Hitzaren liturgia bat izanen da, hamiliarik gabe, *«gaizki ulertuak ez izateko»*. Informazio gehiago 948 510080 telefonoan.

## LEITZA

# 500 milioi pezetako udal aurrekontua onartu da

### Ia 200 milioi inbertsioetarako erabiliko dira

JOSEBA AZPIROZ

Udalbatzak abenduaren 29an egin zuen batzarrean, 2001. urteko aurrekontua onartu zuen aho batez. Denetara ia 500 milioi pezetakoa izanen da; hauetatik ia 200 miloi pezeta inbertsioetarako: Udaletxeko bigarren solairuaren berritzea, Arkiskil eta Erreka auzoetako ur hornidura, Gitarranbueltako zabortegiaren berreskurapena, industrialde berrirako sarbidea egiteko Olaberriko zubiaren eraikuntza eta pilotalekuko berrikuntza lanak.

Batzar berean, industria eta etxebizitzak egiteko lur eremuen kudeaketaz arduratuko den Leitza Lantzen enpresako administrazio kontseilua osatu zuen Udalak. Bixente Usabiaga izanen da enpresaren lehendakaria.



Udaletxeko bigarren solairuaren berritze lanak eginen dira aurten. Artxibokoa

Euskararen erabilera planana ere onartu zen, EH eta EAko zinegotzien aldeko botoekin eta UPNko Mujika zinegotziaren aurkakoarekin (Caballero ez zen bilerara joan). Planaren helburu nagusia euskararen presentzia eta erabilera normalizatu eta areagotzea da. Datozen bi urteetan administrazioak hizkuntzaren alde eman beharreko pausoak zehazten ditu. Herritarrekin Udalak dituen harremanak ez dira aldatuko hizkuntzari dagokionez. Hemendik aurrera eman beharreko aldaketak obrak egiteko edo zerbitzuak jasotzeko Udalak kontratatzen dituen enpresekin izanen dira; hauei ere euskararekiko baldintza minimo batzuk betetzea eskatuko baitzaie.

### flash

**Lizentzia fiskala**
Leitzan lizentzi fiskalaren zerga ordaintzen duten 217 enpresa edo langile autonomoek, 11 milioi ordainduko dizkiote Udalari 2000. urtearengatik.

**Etxe berritzeak**
Etxeen berrikuntzarako dirulaguntzak bideratzeko Leitzaldeko bulegoan, 61 espediente berri tramitatu dira 2000. urtean. Bulego honetan Larraun, Lekunberri, Araitz, Betelu, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko eskaerak tramitatzen dira. Denetara, 282,5 milioiko obrak egin dira, 149,9 milioiko prestamo edo maileguak lortu dira eta 57,9 milioiko dirulaguntzak.

**Aralar Musika Eskolak**
bere 30. urtemuga ospatu zuen zineman egin zen ekitaldian. Sektore ezberdinetako 20 lagunek ospakizunean parte hartu zuten abestuz.

## ARANO

# Aurten kobratuko diren zergak aztertu zituen Udalak

### Ura, zaborra eta larreen tasak ere ikusi ziren

KONTXI KLABER

Aranoko Udalak, 2000ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran, honako zergatasen errebisioa ikusi zuen banan bana, bakoitzari prezioen igoera edo punturen bat aplikatuz: hirilurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa; landalurraren gaineko kontribuzioaren karga-tasa; eraikuntza, instalazio eta obren gaineko udal zergaren karga tasa; hiri lurraren balio igoeraren gaineko zerga; jarduera ekonomikoen zerga eta zirkulazio zerga.

Beste tasei dagokienez, uraren eta zaborraren etxeko tarifa eta tarifa industriala eta larre tasak aztertu ziren.



Udalak aurten kobratuko diren zerga eta tasei buruzko azterketa egin zuen joan den urteko azken batzarrean. Artxibokoa

## BAZTAN

# Udal ordenantzen berritzea eskatu dute herrietako alkateek

### Erabakiak hartzeko ahalmena eta autonomi gehiago nahi dute

TTIPI-TTAPA

Hiru herrietan alkate gabe egoteak –tartean Elizondo, herririk haundiena–, Baztan Balleko udal ordenantzak berritzearen aldeko iritziak sortu zituen Eguberrietako Junta Generalean. Batzuen iritziz, *«erabateko krisia»* dago instituzioetan eta gehienek bat egiten dute, *«sistemak huts egiten duela»* erraterakoan. Florentino Goñi, Oronozko alkateak adierazi zuenez, Baztango udal aurrekontua aztertu eta onartzeko ahalmena izan zen Junta Generalari kendu zitzaion lehendabiziko gauza. Alkatetzan bederatzi urte beteko dituen honetan, «herriek erabakitzeko ahalmen gehiago eta aunitzez autonomia handiagoa» behar dutela azpimarratu zuen. Balleko Udalak eskaintzen dien tratuaz ere arrenkura azaldu zuten herriko alkateek. Anastasio Nagore, azken bi urteetan Elizondoko alkate izan denak erran zuenez, *«batzuetan utzikeria ere somatzen da Herriko Etxearen aldetik»*.

Patxi Oiartzabal Baztango alkateak azaroak badaudela onartu zuen. Ordenantzak berritzearen alde azaldu zen, baina arazo ekonomikoak zailak direla gogoratu zuen. *«Nafarroako Gobernuak biztanleen arabera banatzen ditu dirulaguntzak. Baztan Nafarroako herririk zabalena da, baina biztanle guti ditu eta arras sakabanatuak. Hori ez da kontuan hartzen»*.

### Florentina Daintziart azpilkuetarraren zerriak sarituak Porc D'Or lehiaketan

Espainia osoko zerri hazleak biltzen dituen Porc D'Or lehiaketan zilarrezko domina jaso du Azpilkuetako Florentina Daintziart Telletxea azpilkuetarrak.

Hogeita hamar zerrama baino guttiago dituzten granjetan, zerrama bakoitzeko urtean jaiotako zerrikume kopuruagatik eman diote bigarren sari hori Florentinari.



**Baztan Ikastolako haurrak Bidelagun taldearekin**

Abenduaren 14an, Bidelagun taldeak antolatutako «Baztango haurrak gurekin» ekintzen barnean Baztan ikastolako 6. mailako haurrek parte hartu zuten. Beraiek prestatutako bertsoak, kantak, dantzak, musika... Elizondoko zaharren egoitzan daudenei eskainiz. Abenduaren 22an, berriz, Olentzeroarekin herriko karrikak alaitzera atera ziren. Bitartean, beurek egindako eskulanak denda, taberna, bulego eta banketxeetan utzi zituzten. Argazkia: Baztan Ikastola

## flash

**Irurita-Eugi errepidea** moldatzeko asmoa azaldu du Herrilan Departamenduak. Lu kilometro,terdi moldatzeko lanak enkante bidez emanen ditu. 72.377.607 pezetakoa da hasierako aurrekontua eta behin lanak eman ondotik, hiru hilabeteko epea izanen da akitzeko. Proposamenak urtarrilaren 25a baino lehen aurkeztu behar dira Herrilan Departamenduan.

**Oihan aprobetxamenduak** Zazpi-Iturri, Pertalax eta Belate inguruan dauden 4.735 haritz amerikano eta zipres zuhaitzen oihan aprobetxamendua enkantera atera du Herriko Etxeak. 1.584 metro kubiko zur eta 497 metro su-egur emanen dute. Hasierako prezioa 6.410.040 pezetakoa da. Arteta eta Otsondo Txiki inguruan 2.312 pinu aprobetxatzeko enkantea ere eginen da. 1.540 metro zur eta 499 metro su-egur emanen dute. Hasierako prezioa 12.773.627 pezetakoa da.

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
• SUKALDE MOBLEAK
• BAINU MOBLEAK
• MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • ✆ 948 380 562 IRURITA

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, ✆ 948 580939
ELIZONDO
MERKEALDIAK
TENPORADAKO ARROPA ETA OIHALETAN
ESKULANGINTZAKO MATERIALAK
IÑAUTERITAKO TELAK

## SARA

# Olentzero plazan agertu zaigu lehendabiziko aldiz

### «Salatari« aldizkaria plazaratu dute gazteek

Ana Mari eta Fred



Lehen aldiz Olentzero Sarako plazara iritsi zen.



Lehenbiziko aldiz, abenduaren 22an, Olentzero plazan agertu zaigu, karo batean menditik jautsia. Herriko bi eskoletako haurrek (eskola publikokoek eta ikastolakoek) ongi etorria egin zioten kantuz eta soinuz. Olentzerok ederki eskertu zituen, goxoki ainitz banatu baitzituen haurrei bai helduei. Errebotetik abiatu eta plazan barna ibili zen goiz osoa.

#### Euskal Herrirat

Abenduaren 31n, Urte xahar kari, Sara eta inguruko herrietako 40 bat lagun bildu ziren Sarako Herriko Etxearen aitzinean, presoen Euskal Herriratzea galdetuz; bertzeak bertze Bixente Garzia eta Fernando Arburua zugarramurdiarra gogoan edukiz.

Bertzalde, urte hondar hunek berri pozgarri bat ekarri dauku, Sarako bertze presoa, Teresa Telletxea libratu baitute. Abenduaren 16an, hiru hilabetez Fresnesko presondegian atxilotua egon ondoren, herrirat itzuli zen. Orain baldintzapeko askatasunean da auzia gauzatu arte, muga pasatzeko debekua du eta hilabetean bi aldiz Baionako komisaldegira joan beharra du. Herritar guzien partetik ongi etorri.

#### TTIPI-TTAParen harpidetza

2001. urteko lehenbiziko berri hauekin saratar eta irakurle guziei urte berri on desiratzen dautzuegu.

Milurte berria dela eta hemendik goiti jakinarazten dautzuegu TTIPI-TTAPA eskuratzeko ordaindu beharko dela. Orain arte aldizkari hau urririk hartzen zen, bakarrik batzuk postako garraioa ordaintzen zutelarik. Orain bakoitzak 100 libera ordaindu beharko du eta postaz eskuratzen dutenek 180 Libera. Erran zaharrak dioen bezala: *«Denek zerbait eman dezagun, batzuk dena eman ez dezaten»*. Milesker deneri.

#### «Salatari» aldizkari berria plazaratu dute gazteek

«Salatari» berria ateraia da! Lehena baino lodiagoa eta aberatsagoa agertzen zaigu Sarako gazteek sortu agerkariaren bigarren zenbaki hau. Aipagai nagusietan Besta Komitearen lehendakaria den Martin Goienetxeren elkarrizketa proposatua da, bai eta Zazpiak Bat dantza taldearen aurkezpena ere.

Gainera, kirol emaitzak, disko kronikak, Inguma rock taldeari buruzko erreportaia eta bertze gauza ainitz irakur daitezke. Aipatzekoa da artikulu interesgarri bat agertzen dela udan bakarrik ibilki den sos banatzaileari buruz. «Salatari» euskaraz eta frantsesez idatzia da eta herriko saltegi gehienetan ematen da dohainik. Ondoko zenbakia aski fite plazaratu nahi denez, Gaztetxeak oroitarazten du bakoitzaren ekarpena ongi etorria dela, beraz zerbait idatzi nahi baduzue, ez lotsa!

Gaztetxeak antolatu ekitaldiekin segituz, ihauteriak hurbiltzen ari baitira, kantu eta dantza ikastaldiek segitzen dute Gaztetxean ortziralе eta larunbatetan.

#### Telethon arrakastatsua

Aurtengo Telethon ekitaldiak arrakasta haundia izan du Saran, denetan 18.290 libera bilduak izan baitira herrian. Antolatzaileen partez, milesker!

#### Joko Berri txapelketa

Sarako Izarra pilota elkarteak 7. esku huskako joko berri txapelketa antolatzen du urtarrila erditsutik goiti. Lau sail desberdin izanen dira. Izenak ematen ahal dira jateko tenoreetan 0559542496 edo 0559542919 zenbakietarat deituz, urtarrilaren 15a aitzin.

ola SAGARDOTEGIA

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

TXOTX denboraldiaren irekiera

Urtarrilaren 14an Bertso-bazkaria

PEÑAGARIKANO eta Jexuxmari IRAZUrekin.

SAGARDOTEGIKO MENUA + KAFEA, KOPA eta PUROA:

3.500 Pta

Txartelak eskuratzeko deitu 943 623130 telefonora

## EZKONTZAK

**Mikel Gotzon Iriarte Antsorena** eta **Miren Josebe Jauregi Etxeberria**, Donamariakoak Elizondon, abenduaren 9an.

**Valentín Abuin Arrasate** eta **Maribel de los Santos Díaz**, Lesaka eta Republika Dominikarrekoa, azaroaren 11n.

## JAIOTZAK

**Oihan Meoki Iparragirre**, Lekarozkoa, abenduaren 12an.

**Dunia Lara Mindegia**, Elizondokoa, abenduaren 12an.

**Ibon Mindegia Artetxe**, Elizondokoa, abenduaren 20an.

**Ioritz Elizegi Uitzi**, Goizuetakoa, abenduaren 26an.

**Saioa Zelaieta Lazkano**, Berakoa, azaroaren 30ean.

**Jone Igoa Migeltorena**, Berakoa, abenduaren 2an.

**Paula Arotzena Jorajuria**, Doneztebekoa, abenduaren 14an.

**Ainhoa Telletxea Iparragirre**, Etxalarkoa, abenduaren 24an.

**Joan Segure**, Sarakoa, abenduaren 5ean.

**Ane Larretxea Lukanbio**, Arantzakoa, abenduaren 28an.

**Noelia Almandoz Lukanbio**, Arantzakoa, abenduaren 25ean.

**Ainara Burgete Migelena**, Igantzikoa, ilbeltzaren 4an.

## HERIOTZAK

**Melitón Irigoien Arratxea**, Erratzukoa, abenduaren 20an, 87 urte.

**María Morea Aznar**, Elizondokoa, abenduaren 27an, 100 urte.

**Plácido Aleman Urrizola**, Iruritakoa, urtarrilaren 1ean, 80 urte.

**María Soledad Oiartzabal Plazas**, Berakoa, urtarrilaren 1ean, 91 urte.

**Francisco Olasagasti Portu**, Lesakakoa Leitzan, abenduaren 23an, 73 urte.

**Esteban Andueza Elizalde**, abenduaren 22an, 79 urte.

**Juan Etxeberria Etxeberria**, Beintza-Labaiengoa, abenduaren 19an, 75 urte.

**Sebastien Berhau**, Sarakoa, abenduaren 17an, 68 urte.

**Joxepa Lar Arretxea**, Igantzikoa, ilbeltzaren 2an, 87 urte.


HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
Maixan eta Véronique
64310 SARA • Tel. 05 59 54 25 19

BAZTAN FUNERARIA
ORAIN TANATORIO ZERBITZUA
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
EHORZKETA ZERBITZUAK • TRASLADOAK
Mendituri, 1 • ELIZONDO • ✆ 948 580373 • 608 776176

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
■ Zurich Aseguruak
• Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
■ Lan aholkularitza
• Nomina eta Aseguru Sozialak
■ Aholkularitza fiskala
• Errenta Deklarazioak, IVA...
■ Inmobiliaria
• Baserri, borda, pisu, etxabarren salmenta eta alokairua
■ Gestoria
• Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak
Santiago 15 - Tlnoa eta faxa: 948 580804 - ELIZONDO


BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia
• Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
• Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
• Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak
121 errepide nazionala, 54. km
Tlnoa: 45 23 74 - IRURITA

DATUAK.........

❶ *Iban Zubieta 18 urteko aurrelariak Lizarran Guillermo Mazoren omenez jokatutako lau terdiko txapelketa irabazi zuen gazte mailan abenduaren 11n.*

❷ *Larraungo Azpirotz-i 18 eta 11 irabazi zion finala, honela Nafarroako lau terdiko txapela eskuratuz. 7-11 galtzen joan ondotik, tantu guziak segidan egin zituen beratarrak.*

❸ *Gure Txokoa taldearekin pilotan aritzeaz gain, Injenieritza ikasketak egiten ari da. Afizionatu mailan oraindik ikasteko aunitz gelditzen zaiola uste du.*

TESTUA ETA ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Iban ZUBIETA** *Berako pilotaria*

# "Bikoteka ongi moldatzeko aitzineko jokua ikasi behar dut"

Nafarroako gazte mailako lau terdiko txapelketan nagusitu da Iban Zubieta beratarra. *«Finala gogorra izan zen. Ni gaizki hasi nintzen eta Azpirotzek bere pilota ateri eta aisa dominatzen zidan. Hasieran, beti aitzinetik joan zen, 7-11 bitarte. Gero, pixkanaka hasi nintzen hobe jokatzen eta 18-11 irabazi nuen»*. Aitzinetik, lau eskualdetan banatu ziren Nafarroako pilotari gazteak. Multzo bakoitzeko lehenbizikoa sailkatu zen azken faserako. Txapelketa honetaz gain, lau terdiko partidu gehiago jokatzen ditu Zubietak, herrietako bestetan batez ere. Baina ez du bere burua modalitate honetako espezialistatzat jotzen: *«Ni gustora aritzen naiz distantzia horretan eta partidu politak egin ditut. Baina hor ikusi behar da bikoteka nola moldatzen zaren. Ni bezalako aurrelari batek aitzineko joku hori ikasi behar du, bi paretak, dejadak...»*.



«Aunitz jotzen duen atzelaria baino, seguruxeagoa dena nahiago dut».

**«GURE MAILAN EZ DA ARAZORIK PILOTEKIN»**

Joan den urte akabailan profesionalen artean jokatutako lau terdiko txapelketan, zer erran ugari sortu zituen piloten aferak. Zubietak dioenez, *«gure kategorian ez dugu horrelako arazorik izaten, pilota gehienak berdintsuak baitira. Txapelketa antolatzen duenak ateratzen ditu eta orain arte ez da kejarik izan»*. Atzelari jotzaileak baino seguruak direnak gehiago estimatzen ditu, bikoteka ari denean: *«Jendeak ikusteko nahiago izaten du aunitz jotzen duen atzelaria, tokea duena. Baina jokatzeko, seguruxeagoa den atzelari batekin gustorago aritzen naiz, tantoa gehiago luzatzen da eta. Ahal dela, segurua izatea»*.

Profesional mailako ispiluan begiratuz, maila handiko pilotariak ikusten ditu Zubietak: *«Badira pilotari aunitz, hagitz onak direnak. Aitzinean, Titin izanen da gaur egun onena nire ustez eta atzelarietan Beloki erraten dute. Gazteen artean Aimar Olaizola gustatzen zait aunitz, hagitz pilotaria da. Goñi ere hor dago, baina ez dakit berea guzia ematen duen»*. Noizbait bere burua pilotari horien artean ikusteko ilusioa ere badu Zubietak, baina ez du presarik. *«Amets egiten da, baina 18 urterekin, hemen bada aunitz ikasi beharra eta aunitz entrenatu beharra. Hobe da pixkan-pixkan joan, afizionatu mailan egiten joan eta denbora ailegatzen denean, orduan egin saltoa»*.

> *"Profesionaletara salto egiteko ametsa beti hor dago, baina 18 urterekin bada aunitz ikasi beharra. Pixkanaka egin eta denbora ailegatzean salto egitea hobea da."*

# Nafarroako txapel guziak irabazi ditu Beti Gazte sokatira taldeak

- Lesakarrek ez zuten tiraldi bakar bat ere galdu iazko txapelketan
- Areso azpitxapeldun izan da kategoria guzietan

AITOR AROTZENA



Honelako irudiak auniztan ikusi dira 2000. urteko Nafarroako sokatira txapelketan: Lesakako Beti Gaztekoak txapelarekin. Artxibokoa

Lesakako Beti Gazte sokatira taldeak sekulan inork lortu ez zuen marka lortu zuen iaz, Nafarroako txapel guzien jabe egitea eta txapelketa guzietan tiraldi bakar bat ere galdu gabe gainera. Abenduaren 16an Arbizun jokatu zen azkeneko saioa, 560 kiloko finala. Aresorekin borroka gogorra espero zen, 600 kiloko azken jardunaldian sei minututik goitiko tiraldiak izan baitzituzten elkarren artean Leitzan. Baina Arbizun, sendo azaldu ziren lesakarrak eta arazo handiegirik gabe, bi tiraldiak irabazi zizkioten Aresori. Lesakako taldea honako zortzikote honek osatu zuen: Jose Angel Mitxelena, Jesus Mari Telletxea, Oskar Telletxea, Iñaki Igoa, Igor Telletxea, Agustin Zubieta, Alejandro Sarobe eta Pascual Taberna. Bigarren postuan Areso gelditu zen, nahiz eta Txantreako aurkako lehen tiraldia kasik bortz minutukoa izan. Txantrea izan zen hirugarren eta Imotz laugarren.

### Nafarroako zakulari txapelketan Txantreakoak nagusi

Sokatira saioaren ondotik, Nafarroako zakulari txapelketa jokatu zen, hiru hirukoteren artean. Talde bat Txantreakoa zen eta bertze biak Beti Gaztekoak.

Txantreako Ramon-txo Balenzuela, Jon Diez eta Xabier Olleta suertatu ziren txapeldun, minutu bat eta 40 segunduko denborarekin. Bigarren postua Beti Gazteko Joxe Telletxea, Jexux Telletxea eta Bixente Igartzabalentzat izan zen minutu bat eta 46 segunduko denborarekin eta hirugarrena Beti Gazteko Iñaki Igoa, Oskar Telletxea eta Eloi Ordokirentzat, segundu bat gehiagorekin. Kirolari bakoitzak 80 kiloko zakoarekin 120 metroko ibilaldia egin behar zuen, hau da, hirukote bakoitzak 360 metro egin zituen.

Dena den sokatirako lau txapelak irabazi ondotik gustora daude lesakarrak. Orain, otsailaren 10etik apirilaren 8ra jokatuko den Euskal Herriko txapelketarako prestaketa hasiko dute.

## BOTE pronto

**Rafa Maritxalar**
irabazle suertatu zen bigarren urtez Zangotzako San Silvestre lasterketan. Lesakarrak 16 minutu eta 50 segundu behar izan zituen lasterketa burutzeko, Antonio Bru beratarrak baino hamabi segundu guttiago. Egues Ibarreko San Silvestre proban, berriz, bigarren izan zen Rafa Maritxalar. Nesken artean ere bigarren izan zen Maika Ariztegi.

**Aimar Olaizola**
Aspek antolatutako Eguberrietako txapelketa irabazi zuten Olaizola II.k eta Goñi III.k, Eibarko finalean Eugi eta Zezeagari 11 tantutan utzi ondotik.

**Mikel Goñi**
Eskuz binakako txapelketatik kanpo gelditu da aurrelari oronoztarra. Joan den urtean partidu guti jokatu zituen Mikelek eta, gainera, lautik bat bertzerik ez zuen irabazi.



**Agustin ZUBIETA** *Beti Gazteko tiralaria*

## *«Euskal Herrikoan, iaz bezala, lautik hiru irabazita konforme izanen gara»*

**Historian lehen aldiz Nafarroako txapel guziak irabazi dituzue. Kontent egonen zarete...**
Lehen bizpahiru aldiz lautik hiru irabazi genituen, baina aurten denak irabazi eta gustora gaude, inork ez baitzuen inoiz hori lortu.

**Taldean lagun aunitz ari zaretela lanean erran nahi du horrek?**
Jendez ongi gabiltza. Ez da errexa 680tik 560 kilora zortzikoteak osatzea, baina 15 lagun gaude tiran.

**Orain Euskal Herriko txapelketa. Hor lautik lau lortzea ez da errexa izanen...**
Asmoa beti hor dago, baina joan den urtean bezala hiru irabazten baldin baditugu, nahikoa izanen da.

**Aurten ez da Munduko txapelketarik, baina Joku ez-olinpikoen topaketa izanen da Japonian. Joateko asmoa duzue?**
Helburua Japoniara joatea izanen zen, baina Federazioak hautatzailea paratu du. Euskadiko txapelketa irabazten zuenak ordezkatzen zuen Euskal Herria orain arte. Orain talde bakoitzeko tiralari batzuk hartuko dituzte. Gainera, entrenamenduak Getxon izanen dira. Polemika handia dago.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## INAUTERIAK

**ERATSUN**

**▸ Ilbeltzaren 13 eta 14an**

## ERAKUSKETAK

**ELIZONDO**

**▸ Abenduaren 23tik ilbeltzaren 21 artio**

Xabier Santxoteria eskultorearen «Proyecto experimental» erakusketa ikusgai egonen da Arizkunenea Kultur Etxean. Zabaltzea, larunbatean, arratseko 7etan. Lanegunetan, arratseko 6,30etatik 9etara.

## LEHIAKETAK

**LEITZA**

**▸ Ilbeltzaren 15ean** bukatuko da Mendibil Mendi taldeak antolatutako mendiari eta naturari buruzko argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 19. orrian.

## TXIRRINDULARITZA

**BERA**

**▸ Ilbeltzaren 14an**

BTTan Bera-Mugairi-Bera ibilbidea, 66 kilometrokoa, eta errepidez Bera-Donibane-Bera itzulia, 62 kilometrokoa. Urtxintxa txirrindulari elkarteak antolatzen du, eta goizeko 9etan abiatuko dira bi irteerak Txantre ostatuaren ondotik.

## PILOTA

**SARA**

**▸ Joko Berri txapelketa**

Urtarrila erditik goiti izena ematen ahal da Sarako Izarra pilota elkarteak antolatzen duen 7. esku huskako txapelketa honetan.

## TELEBISTAKO TXOKOA




### Negua ttipi-ttapa telebistan

Eguberrietako programazio bereziaren ondotik, aste honetan berriz ere betiko martxa hartuko du TTIPI-TTAPA TELEBISTAK. Lehendabiziko elurrak eta negu giroak ez du kanpora ateratzera gonbidatzen, eta etxeko berotasunean momentu goxo batzuk pasatzeko aukera izanen duzue telebistaren aitzinean.

Baina ez da negua urte berriarekin batera ailegatuko zaigun gauza bakarra, izan ere, hilabete honetan bertan hasiko baitira herriz-herriko inauteriak. Egun batetik bertzera hasiko dira inauteriaren ohiartzunak zabaltzen eta guk ere horretan parte hartuko dugu. Hilabete bukaeran Sunbillan hasiko da inauterien ibilbidea, ondotik errekan goiti eginez Ituren eta Zubietak hartuko dute txanda. Hoiek denak ikusi ahal izanen dituzue TTIPI-TTAPA TELEBISTAN urtea eta mendea ongi hasteko.

Ah! eta urte berri on.



## BASERRIA

### ✧ ZERRIKIA ✧

- **Zerrikumea** (20 kilo): 8.600 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 192 pta/k.
- **Zerramak:** 120-125 pta./kiloa, bizirik.

### ✧ BEHIKIA ✧

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta/kg. Kanal

Extra ............ 550-565
1.koa ............ 540-550
2.koa ............ 485-495

- **Urruxak:** Pta/kg. Kanal

Extra ............ 595-605
1.koa ............ 570-590
2.koa ............ 515-535

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 23.000-27.000 eta idixkoak 30.000-34.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 40.000-46.000 eta idixkoak 47.000-57.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420-450 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE-NAFARROA**

(Abenduaren lehen hamabortzaldiko prezioak dira hauek)

## DISKAK




**«Xalbador, bat-bateko mirakulua»**

XABIER AMURIZA

ELKARLANEAN

Fernando Aire "Xalbador" bertsolariaren bat-bateko kantuak bildu ditu Xabier Amurizak disko honetan. Euskal Kultur Erakundearen laguntza izan du proiektu hau burutzeko.

Xalbador 1920an sortu eta 1976an zendu zen. Bizitzan goraipatua izan zen nahiz eta ez beti ongi ulertua. Hil ondotik, ordea, mitu bihurtzeko bidean da Urepeleko artzaina. Sentimendu eta taldentu handiko gizona zen, eta txapelketetako bapateko bertsoetan nabarmen ikusten da hori. Hain zen emankorra, joria, ironikoa, sentikorra, baliabide amaiezinekoa, non bere belaunaldikoek ez ezik, oraingo bertsozale guztiek ere errespetu eta miresmena erakutsi baitizkiote, eta, disko-liburu honen bitartez, etorri eta sen handiko bertsolariari omenaldi moduko bat eskaintzen zaio.

JAKIN BEHARREKOAK

# Eztabaidatu bai, haserretu ez

**Ezin da ukatu zenbaitetan eztabaidaren bitartez arazoak moldatzea lortzen dugula, bainan gehienetan, lortzen dugun gauza bakarra arazoak areagotzea edo berriak sortzea da.**



"Azaldu zure iritziak, ikuspuntuak, bainan ez inposatu".

Eztabaidatu beharrean haserretu egiten garelako gertatzen da hori, hau da, ez ditugu kontuan hartzen eztabaida batetik zerbait onuragarria ateratzeko bete behar diren zenbait arau.

• Ongi pentsatu arazoa eztabaida bat pizteko bezain garrantzitsua ote den.

• Planteatu arazoa momentu egokienean. Hau da, guztiz lasai eta ziur zaudenean.

• Ez saiatu bertzea aldatzen. Bere izateko moduarekin tolerantea izan.

• Ez ateri inoiz zure onetik eta ez utzi bertzeari ere bere senetik ateritzen.

• Argi eduki eztabaidatzea solastea dela, ez oihu egitea eta iraintzea.

• Utzi alde batera eztabaida antzuak. Deus ez lortzeko, hobe ez eztabaidatzea.

*Utzi alde batera eztabaida antzuak. Deus ez lortzeko, hobe ez eztabaidatzea.*

• Eztabaida batean txandaka solastu behar da. Ez moztu bertzeari solasten ari den bitartean.

• Objektiboa izan eta ez utzi burugogorkeria edo harrokeria bezalako sentimenduek gida zaitzaten.

• Azaldu zure iritziak, ikuspuntuak, bainan ez inposatu.

• Ez etsi txantaia emozionalen aurrean, jokabide horiek areagotzea bertzerik ez baituzu lortuko.

• Eztabaida gauza intimoa da, ez dira hirugarren pertsonak nahasi behar.

RAKEL AMIGO
BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

## Liburuak




«Euskera»
Euskaltzaindia
EUSKALTZAINDIA

Euskaltzaindiaren aldizkari ofiziala euskara, euskal literatura eta Euskaltzaindiak egiten dituen aurrerapausoak ezagutzera emateko sortu zen orain 80 urte baino gehiago. "Euskera" izena duen aldizkari horretatik sortu da euskara batuaren hiztegi hau. Euskaltzaindiak ematen dituen gomendio guziak biltzen dira bertan, eta jakina da erakunde honek azken urteotan buelta dexente eman duela zenbait hitzen inguruan. Lehen "ohizko" idatzi eta erran behar zena, orain "ohiko", etab...

Beraz, jendearen zalantzak nabarmenak dira zenbait hitzen inguruan, eta baita ere euskara lanean erabiltzen duen jendeak sufritzen du horren eragina. Hiztegi batu honek, ordea, aldaketa horiekin akabatzea du helburu, hemen agertzen dena baita Euskaltzaindiak atera duen azkena.

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### SAN ANTON EGUNA

**ZUBIETA-ITUREN**

**Abenduaren 21ean**
Erromeria ermitara.

**LESAKA**

**Abenduaren 21ean**
Erromeria.

**ELIZONDO**

**Abenduaren 21ean**
Behiaren zozketa.

### ZINEMA

**LEITZA**

**Ilbeltzaren 12an**
"O brother" 10,30etan.

**Ilbeltzaren 14an**
"O brother", 7,30etan.

**Ilbeltzaren 19an**
"Bailame el agua", 10,30etan.

**Ilbeltzaren 21ean**
"Bailame el agua", 7,30etan.

**BERA**

**Ilbeltzaren 14ean**
"Asterix eta Obelix Zesarren aurka" Kultur Etxean, 17etan.

### TXAPELKETAK

**BORTZIRIAK**

Bortzirietako taldekako bertso lehiaketa. 3. kanporaketa Berako Gure Txokoan urtarrilaren 12an. Finala Lesakako Arrano elkartean, urtarrilaren 20an.

### GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfnora. deitu behar da

**Urtarrilaren 8tik 14ra** Igantzi, Narbarte, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizueta.

**Urtarrilaren 15etik 21era** Lesaka, Doneztebe, Irurita eta Goizueta.

**Urtarrilaren 22tik 28ra** Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

**Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.**

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...**

*Hegoaldetik deitzeko*
*Iparraldetik 00-34-* **948631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapak** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**IGANTZI.** Pisua, garajea eta sotanoa salgai. ☎ 948 637 845 (eguerdiko 1etatik 3etara).


**BULDAIN**
Leitzan 5 pisu salgai, horietako 2 igogailuarekin.
Garajeak eta lokal komertzialak salgai.
✆ 948 476 635
✆ 948 510 534 lulagua


## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI


**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
✆ 948 451 811
617 978 656


## ETXEBIZITZAK

### 105 ETXE KONPARTITUAK

**Pertsona bat** behar da Iruñean pisua osatzeko. ☎ 636 508 326.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LESAKA.** Garajea salgai Albistur 39an. ☎ 948 637 786.

**BERA.** San Esteban karrikan (Telefonicako etxeak) garajea errentan emateko, kotxearentzat egokia. ☎ 948 631 033.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**SARA.** 800 m²ko gordelekua errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lb. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

**BERA.** Arraindegia traspasatzen da. Ekonomikoa. ☎ 629 486 305.

## LURRAK/ORUBEAK

### 113 EROSI

**BERA, SARA edo ZUGARRAMURDI.** Lur-eremu eraikigarria erosi nahi nuke. ☎ 655 709 553.

## ZERBITZUAK

### 207 GARRAIOAK

**Garraioak** eta **banaketak** egiten dira, enpresa zein partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477 277.

## LANA

### 301 ESKAINTZAK


**LODITASUNA**
EDAN ETA ARINDU!
Zure pisua kontrolatua gutxiko janak hezterra gabe
☎ 948 13 11 36


**Igeltsero** gaztea behar dut Ultzama aldean lan egiteko. Soldata ona. ☎ 948 305 369 (eguerdi eta gauez).

**BAZTAN.** Taxi plaza salgai. ☎ 948 453 290 (arratsetan).

Esperientziadun **sukaldaria** behar da Berako jatetxe batean lan egiteko. ☎ 666 079 141.

**Pertsona bat** behar da barran eta jangelan lan egiteko. ☎ 666 079 141.

Ibardinen **langileak** behar dira. Mutilak almazenean aritzeko eta neskak jatetxerako. ☎ 948 631 394.

Malerrekan **familia langileak** behar dira aldi baterako. Nafarroako Aldizkari Ofizialean agertu da oposizio-lehiaketarako deialdia, 2000ko abenduaren 29an. 2001eko urtarrilaren 29a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak Malerrekako Mankomunitateko bulegoan (Merkatarien kalea, 17, behea, Doneztebe). ☎ 948 451 746.

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK


**Nissan Patrol Top-Line salgai**
Turboa, llantak eta defentsa.
☎ 670 25 22 02


**Renault Clio** 1.2 salgai. NA-AU. ☎ 617 567 047.

**Citroen ZX** 1.9 diesela salgai. Avantage, automatikoa. 1992. urtekoa. ☎ 948 580 733.

Opel Corsaren **llantak** salgai, 14 hatzbetekoak. ☎ 948 450 571.

**Land Rover** laburra salgai. Egoera onean. ☎ 656 761 621.

**Seat Toledo** GLX 1.8 i salgai. ☎ 948 630 326.




**egin zaitez harpidedun**

**URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):**
Hego Euskal Herria 47.500 • Ipar Euskal Herria 59.000 • Espainia 47.500 • Europa 59.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak: .................... N.A.N .................... Tlfnoa: ....................
Helbidea .................... Posta Kodea .................... Herria .................... Herrialdea ....................
Ordainketa mota: Banku ☐ Taloia ☐ Transferentzia ☐ Giro postala ☐
(Banku bidez ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa ....................
Erakundea ☐☐☐☐ Sukurtsala ☐☐☐☐ K.D. ☐☐ Kontu zenbakia ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐
Titularra .................... Tlfnoa: .................... Helbidea ....................

Harpidetza-orria bete eta bidali helbide honetara: Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portuetxe, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

**Ford Fiesta XR2** 1.8 salgai. 130 zaldi eta 16 V. Egoera onean, estrak. Prezio negoziagarria. ☎ 659 612 623 (Bera).

**Golf GTI** salgai. NA-AW. Azken modeloa, Turbo 20 V, 160 zaldi. 2 urte. 70.000 km. Berri-berria. ☎ 948 630 807.

**Gas-gas TXT 321** motoa salgai. 1999koa. Egoera ona. ☎ (0033) 559542732.

Okasiozko **trialeko moto marka guziak** salgai. ☎ 948 580 898.

**Suzuki GSX** 600 F motoa salgai, aukera bikaina. ☎ 626 809 190.

## MOTORRA

### 502 TAILERRAK

**MENDAUR MOTOR**
✆ 948 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
C-15 G eta Diesela, Ibiza D, Ford Orion egoera onean, Terrano II 3 eta 5 atekoak.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

## ANIMALIAK

### 602 SALEROSKETAK

Hiru urteko **zaldia** salgai. ☎ 948 450 159.

**Ardiak** salgai. ☎ 948 635 019 edo 639 670 231.

**Bi ahari** mutur grisak salgai, 2 urtekoak. ☎ 948 451 696 (gaueko 9etatik goiti).

## DENETARIK

### 701 GALDU-AURKITUAK

**Monederoa** galdu da Iturenen, abenduaren 10ean Imuntzo eta Belokiren kontzertuan. ☎ 617 340 768.

**Faktura-liburua** galdu da, ustez Lesakan. ☎ 948 630 781 edo 658 737 064.

**Urrezko katea eta domina**, txinatar inskripzio batekin, galdu dira abenduaren 26an Beran. ☎ 948 630021.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

Egurrezko **sukalde kalefaktorea** salgai. Arras egoera onean. ☎ 609 744 757.

Aretxe **parrilak** salgai. ☎ 948 592 092.

**Haritz amerikano** plantak salgai. ☎ 948 450 771.

Sony markako **bideo-kamera** berri-berria salgai. Maleta eta guzi. ☎ 948 630 766 (Jose Mari).

1,5 x 2 metroko **mostradore** berria salgai. Kajoi eta apalekin. 175.000 pta. ☎ 948 510 023 (Mamen).

**Kutxa erregistratzailea** salgai, ia berria. 50.000. ☎ 948510023 (Mamen).

Hergom **sukalde-kalefaktorea** salgai. Egoera onean. ☎ 948 450 750.

**Gerezi-plantak** salgai. ☎ 639 075 588.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

*Ojo al dato!* Abenduaren 19an Iruritako Maite Etxenikek urteak bete ditu. Zorionak *majetona* eta ongi pasa. N. M.


**KULTURKARI**

**Inprenta lanak egiten ditugu**

- Kartelak
- Boletoak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean eginen dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin prezioirik hoberena negoziatu eta listo! Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!

✆ 948 63 11 88



# 2001eko **telefono gida** prestatzen ari gara

Zure datuak zuzentzeko edo publizitatea kontratatzeko, deitu **948 63 11 88** telefonora



# ttipi-ttaparen *zerbitzu komertzialak*

**LAN KOMERTZIALAK**

Kartelak, boletoak, fakturak, bisita txartelak, aldizkariak, egutegiak, liburuak, katalogoak, kartazalak eta paperak, buzoiratzeko publizitate orriak, inprimakiak...

## FOILETOAK



Bi orrikoak, hiru orrikoak, koloretan eginak, zuribeltzean, offset-ean edo fotokopietan...

## KARTELAK



Neurri, kolore eta paper desberdinetan

## ALDIZKARIAK



Komeni zaizun neurri eta kopuruan, zure gustora diseinatuak

## INPRIMAKIAK



Kartazalak, buzoiratzeko paperak, egutegiak, errekordatorioak

**TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAk zerbitzu egoki eta profesionala eskaini nahi die bere lagun eta bezeroei. Horretarako sortu du KULTURKARI, zuk behar duzuna momentu batean egiteko, zure gustura diseinatua eta merke. Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzu!**

**+ 948631188**



# KULTURKARI

**Sarrera BERAtik da**

*Alkaiagako industrialdean*

*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4*

**31789 LESAKA**

*Tfnoa. 948 630 537*

*Fax. 948 631 443*









**Sukaldeak**

**Egongelak**

**Logelak**

**Bainugelak**



**4.000 m²ko erakusketa mobleak ikusteko**

*Larunbat arratsaldetan irekia*